

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2016ko
UZTAILAREN 18an EGINIKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Josu Artetxe Arana
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamaseiko uztailaren hemezortzian, zortziak eta hogeita hamarrak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Susana Martín

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos

Alkate jaunak ongi-etorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

3.- Arespalditzako UE-8 egitaritze-unitatea (Alday Ongintzako Fundazioa): Bidezkoa bada, honako hauek behin betiko onestea:

- **Hiritartze-jarduerako Programak:**
- **Hirigintza Hitzarmena.**
- **Birpartzelatzeko Proiektua**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Udalbatza Osoak 2016ko maiatzaren 30ean hartutako erabakia. Honako hau onetsi ziren hasiera batean:

- Arespalditzako UE 8ko Hiritartze-jarduerako Programa, Alday Ongintzako Fundazioak hitzarmen-sistemaren bitartez aurkeztutakoa; baina behin betiko onetsi aurretik honako hutsune hauek konpondu beharko dira:
- Hitzarmen bidez egindako hirigintzako egitaritzearen Hitzarmena, Arespalditzako UE8ren jabe bakar gisa, Alday Fundazioak aurkeztuta. Dena den, behin betiko onetsi aurretik hirigintzako kargak kalkulatzetik sortutako kopuruaren % 7 jarri beharko du berme gisa. Horrez gain, aurkeztutako hitzarmen-proposamenaren laugarren klausula aldatu behar da.

- UE 8ren jabe bakarraren birpartzelatzeko proiektua, Alday Fundazioak aurkeztutakoa. Dena den, proiektuaren Memoriaren seigarren atala zuzendu beharko da onetsi aurretik, eta bertan gehitu beharko da hirigintza-aprobetxamenduaren lagapenaren balorazioa, maiatzaren 20ko udaleko zerbitzu teknikoek igorritako txostenak dioen bezala.

IKUSI DA.- Hasierako onespina ekainaren 10eko 66 zenbakiko ALHAOn eta 2016ko ekainaren 3ko El Correo egunkarian argitaratu zen, eta jendaurrean ikusgai egon den epean ez da alegaziorik aurkeztu,

IKUSI DA.- Alday Fundazioak 2016ko ekainaren 15ean HJPn hautemandako akatsak zuzentzeko aurkeztutako dokumentazioa. Horretarako, zuzkidura-lagapen publikoen azalera zehaztu da (223,26 m²), eta Arespalditzako 2 zenbakiko hiri-lurzoruko sektorerara igorri da 2.6.4 atalean eta dokumentu grafikoetan. Halaber, egikaritze-unitatean gutxienez 37 zuhaitz landatzeko hirigintza-karga gisa gehitu da urbanizazio-kargaren aurrekontu osoaren barruan dagoena (aipatutako aurrekontuaren 2.5 atalean).

IKUSI DA.- Honako hauek aurkeztu dira: hirigintza-kargen % 7aren berme zatikatuak; hirigintza-kargaren % 1eko bermea; eta zatikatutako bermeak, hirigintza-kargen % 92arenak, urbanizazioa aldi berean eraiki ahal izateko.

IKUSI DA.- Alday Fundazioa ekainaren 15ean aurkeztutako dokumentazioa. Horren bitartez, birpartzelatze-proiektuaren memoriaren seigarren atala zuzentzen da, udaleko txosten teknikoetako baldintzen arabera hirigintza-lagapenaren % 15eko zenbatekoa jasoz.

IKUSI DA.- Udalak ekainaren 2an Hirigintza Antolamendu Orokorren Plana idazten ari direnei Arespalditzako 8 zenbakiko egikaritze-unitatetik eratorritako (berdegune eta espazio libreetako lurzoruen erreserbari dagokiona, 223'26 m², hain zuzen) tokiko sistemen sarearen ekipamendua eta zuzkidura-lagapenaren hirigintza-kargak eta haren hirigintza-kostuak jakinarazi dizkie, Arespalditzako 2 zenbakiko hiri-lurzoruko sektorean sartze aldera.

IKUSI DA.- Alday Fundazioak ziurtatu du Aiarako Arespalditzako 2 zenbakiko hiri-lurzoruko sektorea berriz antolatzeko Aiarako Arau Subsidiarioen seigarren aldaketa puntualean (izapidetze bidean dagoen dokumentua) gehitu dela tokiko zuzkiduren lagapenaren aurreikuspena (berdegune eta espazio libreen erreserba, 223,26 m²).

IKUSI DA.- Amurrioko Jabetza Erregistroak ekainaren 13an ziurtagiri bat igorri zuen, 1572 zenbakiko hipoteka-lursailaren titulartasuna eta kargei buruzkoa. Halaber, hirugarren inskripzioan albo-ohar bat idatzi du, osoko bilkurak hasiera batean egindako onспенari buruzkoa.

IKUSI DA.- Martxoaren 18ko 78/2016 Foru Agindua, Aiarako Plangintzaren Arau Subsidiarioetako bosgarren aldaketaren espediente behin betiko onesten duena (Arespalditzako zaharren egoitza handitzeari buruzkoa).

Halaber, ikusi da maiatzaren 12ko 121/16 Foru Agindua, 78/2016 Foru Aginduak ezarritako baldintzak bete direla zehazten duena (ekainaren 1eko 62 zenbakiko ALHAO).

IKUSI DA.- Lurzoruaren udal ondare izaera duen txosten juridikoa, Alday Fundazioari esparru horretarako administrazioari dagozkion gainbalioen % 15 doan lagatzeari buruzkoa.

Udalak zenbait hitzarmen sinatu ditu Alday Fundazioarekin eta Foru Aldundiarekin Arespalditzako gaur egungo zaharren egoitzan (Fundazioarena da) adinekoen laguntza arautzeko. Hala, Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua bere gain hartu du 2009a geroztik, eta Udalak Foru Aldundiarekin hitzartutako plaza kopuru bat dauka.

Zerbitzuak ongi funtzionatu duenez, eta egoitza handitzea beharrezkoa denez, interes publikoagatik Arespalditzako 5. poligonoko 137-B, C eta D lursailak lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu ziren, eta egoitza laguntza-ekipamendu gisa. Horrela laguntzarako hitzartutako zentro handiago bat eraikiko dute, Arabako Foru Aldundiaren Ongizate Sailaren lankidetzaz-esparruan.

Horretarako, Alday Fundazioa interes publikoko eta irabazi asmorik gabeko elkarte bat dela frogatu ondoren, eta interes sozialeko eta ohiko erabilerarako edo erabilera orokorrerako ekipamendu bat eraiki behar duela jakin ondoren, egoki deritzogu elkarteari doan lagatzea Udalari Arespalditzako UE8n dagoen hirigintza-eraikigarritasunaren portzentajea, kargarik gabekoa; kontzeptua komunitateak hirigintza-gainbalioetan duen parte hartzea izango da, lurzoruaren ondare publiko gisa izendatutakoa, ekipamendua bertan eraikitzeko. Ondorioz, Udalak konpromisoa hartu du udaleko zerbitzu teknikoek kalkulatu duten gainbalio horren zenbatekoa (60.631,83 euro) ez eskatzeko. Betiere, Alday Fundazioak, gutxienez, zaharren egoitzaren eraikuntzan kopuru horretako inbertsio bat egin duela frogatzen badu.

Halaber, interes publikokoa da Arespalditzako UE 8ri dagozkion tokiko hornidura publiko estandarrak (223,6 m² berdegune eta espazio libreentzat) Arespalditzako 2. Sektorera aldatzea, indarrean dagoen araudiari jarraikiz; izan ere, ezinezkoa da estandarrak betetzea UE 8aren tamaina dela-eta, eta 2. sektorea da gertuen dagoen tokia.

Eta sustatzaileari jakinarazi zaio Urbanizatzeko Jarduketa Plana, Hitzarmena eta birpartzelatze proiektuaren behin betiko onespenearekin batera berehala erregistratu beharko duela, bere kargura, tokiko sistemen estandarretarako lursaila lagatzeko eta urbanizatzeko betebeharra, hirigintza-karga gisa; halaber, urbanizazioaren balioetsitako kostua adierazi beharko du, bere jabetzako erregistro-finkan, Arespalditzako 2. sektoreko lursailei dagokiena.

AINTZAT HARTU DA.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legearen 27, 152 eta ondorengoak, 160 eta ondorengoak, eta zazpigarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa (uztailaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofiziala). Eta, uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 6 eta 7 artikuluetan zehaztutakoa, hirigintza-estandarrei buruzkoa.

Era berean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 115.1 e) eta 118.b) artikuluetan xedatutakoa.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22 eta 47 artikuluetan xedatutakoa.

Korporazioak 2016ko uztailaren 18an egindako ezohiko osoko bilkuran, aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea Arespalditzako UE 8ko Jarduketa Programa urbanizatzailea, Alday Ongintzako Fundazioak hitzarmen sistemaren bitartez aurkeztutakoa.

Sustatzaileari jakinaraztea Urbanizatzeko Jarduketa Plan honen helburu den urbanizazioa bete ahal izateko irailaren 9ko 1753/2015 ebazpeneko baldintzak bete beharko direla (Errepideetako Azpiegituren Zuzendaritzari eta Mugikortasunari buruzkoa), udal plangintzak eskatzen duen bezalaxe, eta aurretik errepideen arloko sektore-baimenak eskatu beharko zaizkiola eskumeneko organoari.

Bigarrena.- Berrestea Udalak Arespalditzako UE8n dagokion hirigintza-eraikigarritasun portzentajea, hirigintzako kargarik gabekoa, Alday Ongintzako Fundazioari doan lagatzeko erabakia, komunitateak hirigintzako gainbalioetan duen parte-hartzearen kontzeptuarekin. Lurzoruaren ondare publikotzat hartzen da, zaharren egoitza bertan eraikitzeko. Hori guztia Alday Fundazioa interes publikokoa eta irabazi asmorik gabeko erakunde bat dela frogatu delako, eta interes sozialeko eta pertsona guztiek erabiltzeko ekipamendu bat eraiki behar duelako.

Eta behin betiko onestea hitzarmen bidez egindako hirigintza-egikaritze hitzarmena, Arespalditzako 8 zenbakiko jabe bakar gisa Alday Fundazioak aurkeztutakoa. Halaber, alkate-udalburuari sinatzeko baimena ematea.

Sinatu ostean, Udaleko hirigintza-hitzarmenen erregistroan artxibatzea.

Hirugarrena.- Behin betiko onestea Alday Fundazioak aurkeztutako birpartzelako proiektua (jabe bakarrekoa). Bertan jasotzen da Alday Fundazioren doako lagapena, Udalari Arespalditzako 8 zenbakiko egikaritze unitatean dagokion hirigintza-eraikigarritasunaren kargarik gabeko portzentajearena, komunitateak hirigintza-gainbalioetan duen parte-hartzea kontzeptuarekin. Halaber, onestea hirigintza-estandarrek Arespalditzako 2 zenbakiko sektoreari igortzea.

Laugarrena.- Alday Fundazioari eskatzea Arespalditzako UE8ari dagozkion tokiko hornidura publikoen estandarrek aldatzea aurreikusten duten UJP, Hitzarmena eta Birpartzelatzeko Proiektua onesten direnean (223,6 m² berdegune eta espazio libreerarako), berehala bere kargura izango direla, hirigintza-kargu gisa, tokiko sistemen estandarretarako lurrak lagatzeko eta horiek urbanizatzeko betebeharra. Halaber, urbanizatzek ekarriko duen kostua adierazi beharko du (hirigintza-kostu zenbatetsia 6.600 eurokoa izango da; bere jabetzako erregistro-finka) Amurrioko jabetzako erregistroan, Arespalditzako 2. sektoreko lursailari dagokiona (Aiarako 1572 lursaila, 271 liburukia, 22 liburua, 153 orria, dagokion bigarrena).

Ohartaraztea ez zaiola lizentziarik emango konpromiso hori bete duela frogatu arte.

HJPren behin betiko onespeneren erabakiaren administrazio-ziurtagiria eta birpartzelako proiektuarena igortzea. Horiei bi dokumentuen kopia eginbidetua erantsiko zaie, jabetza erregistroan aurkeztu ahal izan dadin, urriaren 30eko 7/2015 LEDren 65 eta 66 artikuluetan xedatutakoaren arabera eta LLTBk dioenari jarraikiz, Arespalditzako 8 zenbakiko egikaritze-unitateari dagozkion zuzkidura publikoen estandarren erreserba jabetza bereko lursail honetara aldatzeko sortutako hirigintza-karga 1572 lursailean inskribatzeko.

Bosgarrena.- ALHAOn argitaratzea HJPren eta birpartzelatze proiektuaren behin betiko onespeneren iragarkia.

Seigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Alday Fundazioari eta Arespalditzako Administrazio Batzarrari. Halaber, jakinaraziko zaio hilabeteko epean erabaki honen aurkako aukerako berraztertze

errekurtsoa jarri ahal izango diotela Udal honi, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dutela Administrazioarekiko Auzien Gasteizeko Epaitegian bi hilabeteko epean.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta hogeita hamabost minutu direnean eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko uztailaren hemezortzian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.